

# *ttipi-ttapa*

1993.eko Uztailak 29

115. zenbakia

dohain banatzen da



**IRRATI - AFIZIONATUAK:  
MUNDUAREKIN SOLASEAN**

# **BAZTANDARREN BILTZARRAK**

**esker mila haundienak eman nahi dizkie aurtengo  
edizioan lanean parte hartu duten guziei**

*Orga zamarendako eman duten  
guztia, karrozak egin dituztenak, komisio  
guztietan parte hartu dutenak,  
komunikabideak, Udala eta bere borondatez  
Baztandarren Biltzarra lagundu duten  
guztia.*

Horrelako laguntzarekin Baztandarren Biltzar  
ederra antolatzen segituko da etorkizunean.

***Baztandar guztion elkartasunak batzen  
gaitu!  
Gora Baztandarren Biltzarra!***

ORGA ZAMAREN ERRIFAKO ZENBAKI SARITUA HAUXE IZAN  
DA:

- 1.- 6.460 zenbakia : Bi hilabeteko epea du  
agertzeko.
- 2.- 7.225 zenbakia: Lehenengo zenbakia  
ez bada ateratzen,  
15 egun ditu aurkezteko.
- 3.- 1.300 zenbakia: Bigarrena ere ez balitz  
aterako, 15 egun izanen ditu  
ateratzeko.

**INFORMAZIOA: 580490**



**BAZTANDARREN BILTZARRA  
ELKARTEA**

# non - zer

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea.

**Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, Patxi Otxandorena, Joseba Azpiroz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari Saizar, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k.

**Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*.

**Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Goizueta, Leitza eta Berako udalak...

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

## *ttipi-ttapa*

**HAMABOSTEKARIA**

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.500 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

**4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

**7 HONTAZ ETA HARTAZ**

**8 IRAKURLEAK MINTZO**

**9/24 HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Bera eta Leitzako beste buruzko Gehigarri bereziak.

**25 KIROLAK:** Iruritik Oitzeri irabazi zion laxoa txapelketako finalean.

**26 ERREPORTAIA:** «Irratia zaletasun bihurtzen denean», Gorramendi irrati - afizionatu elkarteaz solasean.

Aitor Arozena

**28 ELKARRIZKETA:** Manuel Iriarte, Berako alkatea: «Dirurik ez dagoenean ahal dena egiten da eta ez nahi dena».

Joxemanuel Irigoien

**30 MERKATU TTIKIA**



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

## Beharrezko telefonoak

**SOS Nafarroa /Urgentziak**...088/061

### OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe .....450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza .....510248 / 510573

### KONTSULTAK

Arizkun .....453039

Gartzain .....580451

Oronotz-Mugaie .....592024

Ituren .....450183

Sunbilla .....450283

Goizueta .....514067

Igantzi .....637755

Arantza .....634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

### ANBULATORIOAK

Irun .....630264/621106

### OSPITALEAK

Irungo ospitalea .....614600

Nafarroako ospitalea .....102100

SSko urgentzi zerbitzua .....246750

Virgen del Camino

erresidentzia .....109400

Gurutze Gorria.....226404

### ANBULANTZIAK

Oitz .....450242/450805

### DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

### FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314

Lesaka.....637404

Elizondo .....580924

### SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie .....592255

### GARRAIOAK

Bidasotarra .....630279

Baztanesa .....580129

Leitzarar .....515018

### HIRUGARREN ADINARENDAKO

#### ZENTRUAK:

Elizondo .....580730

Lesaka .....637154

Bera .....630261

### ABERIAK:

Iberduero .....450335/450336

## Botikak

► **Uztailaren 31-abuztuaren 1ean**, Bera, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Abuztuaren 7-8an**, Arantza, Ituren eta J. Iturralde (Elizondo).

## Kirolak

### ► URDAZUBI

Abuztuaren 8an, arratsaldeko 4etan, VI. Urdazubiko motocross txapelketa, senior, junior eta jubenil mailan.

## Zinema

### ► GOIZUETA

Abuztuaren 10tik 12ra euskarazko zine emanaldiak herriko plazan gaueko 11etan. 10ean 'Arrosaren ize-na', 11an 'Behiak' eta 12an 'Rio Bravo'.

## Bestak

### ► BERA

Abuztuaren 1etik 6ra (ikus xehetasunak erdikaldeko gehigarrian).

### ► LEITZA

Abuztuaren 10etik 15era (ikus xehetasunak erdikaldeko gehigarrian).

### ► SUNBILLA

Abuztuaren 10tik 14ra. (Ikus xehetasunak 16. orrialdean).

### ► BEINTZA-LABAIEN

Uztailaren 30etik abuztuaren 3ra. (Ikus xehetasunak 17. orrialdean).

## Bestak

### ► ZIGA

Abuztuaren 7tik 11ra (ikus xehetasunak 21. orrialdean).

## Bota bertsoa



### Alaitz REKONDO

Bortzirietako Bertso Eskolakoa

**Gaia:** Turistak

**Doinua:** 'En una jaula de oro'

Euskadiko herriak  
turistaz beteak  
ongi jasotzen ditu  
bertako jendeak  
argazki makinak hor  
nunbaiten gordeak  
batzuk zaharrak dira  
Ai ai ai aiii!  
besteak gazteak.

Leku desberdinetik  
etorritzen dira  
serio ta pasotak  
dentikan badira  
ordu ta erdi pasa  
gauz bati begira  
batzuk hondartzara ta  
Ai ai ai aiii!  
besteak mendira.



## Erakusketak

### BERA

Uztailaren 31tik abuztuaren 8ra, Jamotenean, Oaia Perurenak eskuz margotutako altzarien eta Miraille Sinek eskuz margotutako seda naturalen erakusketa.

**Ordutegia:** 6etatik 9etara.

## Jaialdiak

### BERA

XABIER LETE

Uztailaren 31an (larunbata) 10'30etan, Kultur Etxean. **Antolatzaileak:** Udal Kultur Batzardea eta Bortzirietako Euskaltegia.

## Antzerkiak

### BERA

Uztailaren 30ean (ortzirala) arratseko 8'30etan, Kultur Etxean «Bai teatro» taldearen 'Will you miss me' clown-antzerki ikuskizuna.

## Gastronomia




### ARROZA ALMEJAKIN

#### Osagaiak 4

#### lagunendako:

Kilo bat almeja, arroza, tipula bat, 3 baratxuri ale, baso txiki bat ardo txuri, arrai salda, olio eta gatza.



Benar ZABALETA emana - HARAKINDEGIAkoa - LEITZA

Lurrezko kazuela batean olio eta tipule eta baratxuria

txiki txiki eginda jarriko dugu.

Egiten direnean, almejakin jarriko ditugu, dena nahastuz. Ardoa botako diogu eta bi edo hiru minutu utziko dugu irakitten.

Arroza botako diogu eta bi halako arrain salda. Hogeitabat minutuz labeaz sartu eta serbitu.

## Baserriko feria



### ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 3.650 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 145 pzta/kilo **Zerramak:** 60-80 pzta./kilo bizirik.

### BEHIKIA

#### •Aretze gizenak:

**Idixkoak:** Pzta/kg. Kanala Extra.....570  
1.koa.....550  
2.koa.....535

**Urruxak:** Pzta/Kg. Kanala Extra.....575

1.koa.....565  
2.koa.....550  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

#### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 370 Pzta./Kg. Kanala. Behi gorri ona: 450 Pzta./Kg. Kanala.

#### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak:** urruxak 20.000-22.000 artean eta idixkoak 32.000-38.000 Pzta. artean.

**Mestizoak:** urruxak 32.000 artean eta idixkoak 40.000-47.000 Pzta. artean.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

## J. M. ANDUEZA

### X Sua mozteko ateak

- Metalikoak
- Egurrezkoak
- Kristalezkoak
- Korrederak.
- Segurtasunekoak

### X Garajerako edozein motatako ateak, neurritan eginak

- Automatikoak eta eskuz ireki beharrekoak

Tfnoa eta Faxe: 630854 - BERA

## SOINU eta ARGIAK ALOKATZEN DIRA



- Bertsolariak, Rock
- Mitinak, gaztetxeak...
- Ostatu eta txoznetan ere montatzen ditugu.

☎ 631059

☎ 630970

BERA



**Jesus M. Martiarena**  
'Txato' Elgorriagako gaztea

- ▶ **Jendea zirikatzeke zein da modurik hoberena?** Pixka bat ezagutzea eta gaizki egin gabe.
- ▶ **Pertsona batengan bertuterik gustokoena?** Sintzeroa izatea, faltsu sobe-  
ra daude.
- ▶ **Eta zer ez zaik gustatzen?** Gezurtia, hori gorrotatzen diat.
- ▶ **Hemengo neskak ala kanpokoak?** Bikotea izateko jende berria hobe.
- ▶ **Neska batengan gustokoena?** Hor-  
tzak eta bizikletaren zirrikak.
- ▶ **Manitas edo manoso?** Bitikan.
- ▶ **Politasuna edo argia?** Politasuna  
galtzen da, inteligentzia hobetuz joaten  
da.
- ▶ **Gaurko politikariak bai edo ez?** Ez,  
nulo.
- ▶ **Denbora librean zer?** Neskarekin  
mendian ibili.
- ▶ **Juerga edanez edo edan gabe?** Pixka  
bat edanez baina mozkortu gabe.
- ▶ **Zergatik 'Txato'?** Pinotxo ez naize-  
lako.

### ▶ Mexicar musika berritua

Duela urte saila mexicar musika gogoz aditzen zen Eus-  
kal Herriko txoko gehienetan. Na-  
hiz eta euskaldun aunitzek letrak ez  
ongi ulertu, mu-  
sika alaia eta ba-  
tez ere akordeoi-  
an laguntza zai-  
netaino sartzen  
zitzaien jende  
aunitzeri. Euskal  
musika berria in-  
darrez hasi arte,  
erranen nuke ko-  
txetan izaten zi-  
ren kaseta ge-  
hienak mexica-  
nak izaten zirela.  
Urte batzuz ez da  
gauza haundirik  
entzun. Egan tal-  
dearen bertsio  
banaka batzu eta  
berriro Iruñako  
Huajolotes tal-



dea. Letra eta  
musika aldetik,  
giro aldetik ere  
"mozkorsaltsa"n  
gelditzen den  
taldea da nere  
ustez. Mejiko al-  
dean berriz, ba-  
tez ere Iparral-  
dean, berte tal-  
de batzuk sortu  
eta badabiltza  
musika alai eta  
letra hobeakin.  
*Los Tigres del Norte*  
dira ezagunenak,

dozenaren bat  
diskekin. *Los felinos*, *Los humildes*,  
*Los broncos*, *Los*  
*tornados*, *Los ma-*  
*chos*... Hauen le-  
trak, drogen ma-  
fia, mexicar emi-  
granteen esplota-  
zioa EEBBtan,  
'bizkar bustien'  
detentzio eta es-  
pultsioak... Gra-  
bazio gehienak  
Los Angeles eta  
Texasen egiten

dira. Badago  
bertze musika  
mota berri bat  
ere, Tex-mex  
deitzen dena,  
country eta me-  
xicanak nahas-  
tuz. Zaila da ora-  
indik talde hauen  
musika lortzea,  
baina laister ha-  
siko dira inporta-  
tzen, nahiko sal-  
duko baita.

MARIANO

## ARITZA MENDI LANAK

- Plantazioak
- Mendi garbiketak
- Kimatzeak
- Zerrakurak...

**Presupuestoak  
konpromisorik gabe**

☎ 634008 eta 627608  
Plumenborda baserria-ARANTZA

## ZIZKA OSTATUA

**Martxa eta mozkor saltsa**  
Altzate 28 - BERA



**MALDAERREKA S.A.**

«La Suiza»

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

Aseguro  
mota  
guziak

## LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

### ZERBITZU BERRIAK

- ☞ A-3 eta A-4 fotokopiak
- ☞ Inprenta lanak enkarguz
  - ☞ Kautxuzko zigiluak
  - ☞ Kartelak eta fakturak
  - ☞ Enkuadernazioak...

Legarra 9, ☎ 637030 - LESAKA



Joxemanuel

**Baztandarren Biltzarra**, aurtengo XXX. edizioan Xorroxin irratia omendu zuen azken hamabi urtetan euskaren alde egindako lana eskertuz. Bazkalondoan, oroigarri batzu eman zitzairen Xorroxineko arduradunei. Hauek, bere aldetik, zuzenean emititu zuten orga apainduen desfilea, argazkian ikus daitekenez.

## Material ortopedikoa eskuragarri Bortzirietako Gizarte Zerbitzuan

Bortzirietako Oinarriko Gizarte Zerbitzuak bere esku dagoen material ortopedikoaren berri eman du idatzi baten bidez. Material guztia Bortzirietako jendeak etxean erabiltzeko da. Grua (ezinduak ohatzetik aulkira edo bainerara mugitzeko), gurgildun aulkia,

andadorea eta ohatze artikulatua eta koltxoia "antiescaras" dira momentu honetan eskuragai dauden materialak.

Noizbait hauen beharrean aurkituz gero 635036 telefonora deitu edo gizarte langilearengana joan zuen herrian dagoen egunean.

*Diputazioko ordezkari eta inguruko alkateen txalo artean*

## Belateko tunelaren obrak uztailaren 19an hasi ziren



Belateko tunela egiteko lanen lehen fasea uztailaren 19an hasi zen. "Gurutzearen kurba" bezala ezagutzen den lekutik hurbil, Nafarroako gobernuko lehendakaria eta zenbait sailburu, eta zonaldeko hainbat alkate eta zinegotzi bildu ziren, tunelaren hegoaldeko sarrera izanen denaren lanen hasiera ikusteko eta txalotzeko. Juan Cruz

Allik erran zuenez, tunelaren hasiera "egia bihurtu den amets bat da" eta Nafarroako komunikabideak "nabarmenki" hobetuko omen dira tunela bukatzerakoan. Orduan, Iruñara joateko 20 minutu guttiago beharko dira.

Belateko tunela, Nafarroako luzeena izanen da, 2.887 metroekin eta aurrekontua 2.872 milioi pezetakoa da.

### INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



# IRAKURLEAK MINTZO

## ERREPIDEAN LASAI

Udaberria hasita Holandatik zetozen kamioneroei gure auzoan askaria hartzeko gogoak sartu zitzaizkien. Eta pentsatu gabe, lehenengo etxean sartu

ziren, kamioi eta guzti. Eskerrak etxe-kotarrak baratzean zeudela, askarirako karakolak bilduz.

Horrez gero, bizilagunok kexu ginen, ea holandatar edo bestaldekotar kamionero guztiekohitura berberak hartzen zizuten...! Horregatik

Trafiko sailari idatzi bat bidali genion irtenbidea eskatuz.

Orain, hiru hilabete eta gero, Doneztebeko bestak hasita (udaberria joana), numeroak pintatu dituzte errepidean, abiadura mugatu behar dela adieraziz. Eta gure bizilagunen etxe

aurrean metalezko hertsia jarri "para el rebote" badaezpada ere. Txartel bat jartzeari ahaztu zaie: "Azkarrena, kaka-lo!". Baina udazkena hasita ote...

Bitartean kamioneroak, errepidean lasai.



ZUBIGARAI  
15.871.614  
(Doneztebe)

\*\*\* SAN ESTEBAN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU \*\*\*



Legia 11 - 63 06 64 BERA

## ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA



## KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

## SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

## Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

**B** RADIO  
BIDASOA

## UZTAILA - ABUZTURAKO PROMOZIOA

## Z O Z K E T A

- \* FRUITUAK URTZEKO MAKINAK
- \* ILEAK KENTZEKO MAKINAK
- \* MIKROUHIN LABEAK
- \* IZOZKIAK EGITEKO MAKINAK
- ...ETA AUNITZ GEHIAGO

- 5.000 pezeteroko erosketetan, zozketarako zenbaki bat emanen dizugu.
  - Uztailan eta abuztuan zozketa bana egingen dira.
- Eztegara Pasealekua 14 • BERA • © 630377

## MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA



## Ikasteixeetako Guraso Elkarteak kezkatuak dabilta 'alkoholak eta drogak' ikasleengan duten eraginagatik

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Toki Ona Institutuko Guraso Elkarteak deiturik, zonako ikastetxeetako Guraso Elkarte gehientsuenak bildu dira alkoholak eta drogak 14-18 urte bitarteko ikasleengan duen eragina aztertu eta irtenbideak bilatzeko. Arazoa 'bene-tako eta orokortzat' jo zuten bildutakoek eta irtenbideak bilatzea ez dela batere erraza 'bereziki alkoholaren kasuan, hain sustraitua bait dago gizarteko edozein gertaeretan'.

**Arazo honen soluzioa kolektiboa da**

A r a z o a moldatze-ko guraso, Erakunde

Publiko, hezlari eta guzien parte hartzea aurrikusten da. Berako Udalari dagokionez pare bat eskakizun luzatu dizkiote: batetik osatuen itxiera ordutegia be-



Juan Carlos Garro Gallartan burutu zen proba irabazi zuen

### Garro bigarrena sailkatu da Euskadiko Mendi Bizikletaren Irekian, Obandoren gibeltik

Hauxe da lehenengo aldia probatan parte hartzearena serio hartu duena eta bistan denez arras emaitza onekin gainera. Euska-

diko Irekia edo 'Open' ean bigarrena gelditu da Obando profesionalaren gibeltik; hirugarrena, Jokin Mujika ezaguna.

tearaztea eta bertzetik, 'gau pasak egiteak sortzen dituen arazoak kontutan harturik, udalek baimena emateko garaian ardura

batzuk eskatzea antolatzaileei". Nolanahi ere guraso elkartekoak azpimarratzen dutenez, konponbidea kolektiboa da.

### W ttipi-flash

- ❑ 'Bai Teatro'k eskeina 'Will you miss me?' antzeslana Kultur Etxean arratsaldeko 8,30etan.
- ❑ Xabier Letek kantaldia eskeiniko du Kultur Etxean larunbat honetan gaueko 10,30etan. Bertso zaharrak eta berriak entzuteko aukera bikaina.
- ❑ Kultur Etxean uztailearen 31tik abuztuaren 8ra, Bera-Zizurkil hartuemanetan, Juan Carlos Olaetxea eta Patxi Otegiren lanak ikusgai.
- ❑ Australiako Adelaida hiritik jakinerazi dutenez, mendi bati 'Bera' izena jarri zion Charles Sturt militar ingelesak Larunen itxura ikusi ziolako. Militar hau Ingeles armadarekin egon zen Beran 1813an eta gero Australiara joan zen.

\*\*\* SAN ESTEBAN ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU \*\*\*

**BOAN TAILERRA**



CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA

OPARIAK

BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

**TXOKOA**

**OSTATUA**

X Eguneako menua

X Asteburutan, kaxuelak eta karta

X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta

X Pintxoan espezialduak X Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Altzate • BERA



Orain helbide berria

Kanttonberri 8, © 630751 - BERA



LESAKA

# Igeriketa ikastaroetan neska-mutiko aunitz

Monitore lanean Carlos Altzugarai dute, azken urteotan bezala

AITOR AROZENA

4 eta 11 urte bitarteko 76 haur –sekula baino gehiago– parte hartzen ari dira goizero uda honetako igeriketa ikastaroetan. Carlos Altzugarai lesakarra dute monitore lanetan, azken 7 urtetan bezala. Eguraldiak ez du sobera lagundu orain arte, baina neska-mutiko guztiek gogo haundia paratzen dute, hotz pixko bat pasatu arren.



Piszinako ura hotza egon arren, ez dute beldurrik gaztetxo hauek


## W ttipi-flash

- ❑ **Sanferminetan** ‘Los Incansables’ txaranga ekartzeko dirua biltzeko egindako zozketan 1.565a izan da zenbaki saritua.
- ❑ **Beti Gazteko** futbol talde nagusiak astelehen honetan hasi ditu entrenamenduak. Aurtun, Koldo Erkiziarekin batera, iaz Real Unionen egon zen Kotte Iantzi arituko da entrenatzaile lanetan.

## Irun-Lesaka gasbidea iristen ari da herrira

Irun-Lesaka gasbidearen hodi edo tuboak iristen ari dira herrira, 18 kilometro egin ondoren. Zalainen, gasa Beran banatzeko adar bat egin da. Lanek, 450 milioi inguruko aurrekontua dute, 209 Gipuzkoan eta 241 Nafarroan. Argazkian ikus daitekeenez, Nabaz auzoko Barberenbor da baserrian soro puska

ederra jan du bertze zenbaitetan bezala. Gainera ezin daiteke landarerik sartu tubotik 2 metro baino guttiagora, ezta obrarik egin 10 metro baino guttiagora. Eraberean, ezin da metro erdi baino sakonera gehiagoko golde lanik egin eta langileei pasabidea libre utzi behar zaie. Modernitatearen ondorioak.



AITOR

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko  
orekarik hoberena

**Frexkuena  
zugandik  
hurbilago**

Bitirria 67 – Tfnoa:637264

**SASKI  
OSTATUA**  
LESAKA

**XATURETXEA  
FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bitirria 627542 LESAKA

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**IRUBIDE  
OSTATUA  
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

**KOSKILLA  
OSTATUA**

*Larunbatetan  
mus txapelketak  
sari ederrekin*

Zarandia 4 - LESAKA

## Erraldoiak Iruñako konzentrazioan parte hartu zuten

Udarekin batera, bertzalde, pilota txapelketak hasi dira

ANABEL eta ALBERTO

Uztailaren 4ean, Iruñako peñek antolatuta "erraldioen" konzentrazioa burutu zen nafar hiriburuan. Bertan, bertze aunitzen artean Etxalar-koak izan ziren. "Erraldoi" hauek, 1947an eginak, bertzeekin batera kalejiran Iruñako hainbat karrika zeharkatu zituzten. Iñaki, Aitor eta Barbenek beraien bizkarretan "erraldoiak" dantzatu zituzten.

### Pilota txapelketak

Udarekin batera, herriko pilota txapelketak hasi dira. Helduetan, bai eskuz eta bai palaz, zazpi bikote daude. Gazteetan



Uda aldean, neska mutikoak oporretan daudenean, itzalpean jolastea bezalakorik ez dago

berriz, zortzi dira bikoteak eskuz eta palaz. Herriko neskek ere beraien txapelketa dute eta palaz zazpi bikotek jokatzen dute. Partiduak asteazken, larunbat eta igandetan izaten

dira. Erdifinalak jokatu ondoren, finalak bestetan egingen dira. Dudarik gabe aipagarriena partaideen kopurua da, 37 bikote anitz bait dira. Hoberenak irabaz dezala.

### W ttipi-flash

- ❑ **Usazaleek** egindako ur eskariari Udalak baietza eman dio. Harriatzako iturritik ekarriko den ura usazaleen etxolara ailegatuko da.
- ❑ **Sanferminetan**, Lesaka eta Iruñara herritar aunitz hurbildu da bestetaz disfrutatzen. Gazteetan gain, helduak ere animatu dira, besta egitea denok maite bait dugu.
- ❑ **Zimitzun** landatu berriak diren zuhaitzen garbiketa lana Ana Villanueva igantziarrari eman zaio. Eskeintza guztien artean berea zen merkeena, zuhaitz bakoitza 16 pezetan.

## EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547  
Plaza Berria 13 - LESAKA

## BEREAU jatetxea

Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 637382 - LESAKA



## ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

## KOXXKONTA



Sagardoa  
botiletan  
salgai

Deitu  
erreserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

### «U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA  
PUBLIZITATERAKO  
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

IGANTZI

## Udako kontuak, kontu kontari

Telebista kate ezberdinak ikusteko arazoak badaude



Bi lizentziatu berri ditugu aurten herrian: Mila eta Irene beren karrerak bukatu bait dituzte. Milagrosek Filologia hispánica egin du eta Irene berriz, Ekonomi eta Enpresa ikasketak.

OSKAR TXOPERENA

Udako betiko kontuetan sartuak gara dirudienez, zeren urte gehienetan bezala **ur sareak** nonbait ixuri haundia daukala erraten baita. Bilatzen omen dabilta behintzat udale-

koek.

**Sasiak** berriz, ez omen dute urte txarrik. Lehengo egunean herritar batek erraten zigun bezala, lotsagarriak daude herriko bide bazter gehienak. Nekazaritzaren beherakada



Harrobiaren ezker aldean ikusten den soro horretan zegoen orain dela gutti arte Erreuntekoborda baserria. Aspalditik ikusia zegoen bezala harrobiak irentsi du.

ikusten zuen berak arrazoizat. Orain dela gutti **Tele-5** eta **Antena 3** paratu ziren. Dudan dago ez ote zen okerrera izan, zeren bi hauek gaizki ikusteaz aparte, ETB-1 ere noiznahi hondatua dago.

**Besten programa** ere prestatzen ari dira. Egunak aurrera ditzakegu momentuz. Irailaren 28, 29 eta 30a eta urriaren 1 eta 2a.

**Palazko** finalak datorren larunbatean izanen dira arratsaldeko 6etan.

## MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendak  
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue


- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

Bertan egiten ditugu produktu guztiak

**25 urtetako esperientzia**

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8  
Tfnoa: 943-616603  
**IRUN**



Pasajes 3  
Tfnoa: 943-511598  
**ERRETERIA**

## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



## KATTU

OSTATUA  
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**



## Bi gazte ari dira herriko udako lanak egiten

MIRARI eta MARTA


Bi Joxe Marik (Burgete eta Errandonea) egiten ari dira aurten udako lanak, Herriko etxeak kontratatuta. Goizeko 7etan hasi eta arratsaldeko 3ak arte aritzen dira. Hainbat lan egin dituzte, hala nola Osiña auzotik Arruzpira arte dagoen galtzada garbitu, Apezenetik Lopenekoborda arte dagoen galtzada edo estrata ere garbitu dute, Ekaitza ondoko Suano mendiko zerrakura moldatu eta zenbait tokietan berregin. Herriko zenbait arketa moldatu dituzte baita ere eta herriko sarrera ere nahiko polita jarri dute pareta berria paratuz. Itturbe-

ri ere moldatu beharra dute eta bertze bi iturriak garbitu. Laister, Eguzkialdeko Apitta mendian plantak garbitu beharko dituzte.

Bertze aldetik, frontoian ura sartzen zela eta aipaturiko kristala jartzen ari dira, pareta eta teilatuko tartea itxiz.

### Herri Kirolak

Abuztuaren 8an (igan-dea) Nafarroako nesken herri kirol txapelketako lehen ekitaldiak egingen dira. Eguediko 12etan Sunbilla eta arratsaldeko 6etan Arantzan. Egun berean bi ekitaldiak egingen direnez, neskak nahiko kexu dira, deskantsatzeko denborarik ez dagoela eta.



Herria txukuntzen ari dira bi Joxe Marik

OSKAR

☐ **Besta** gainean ditugula urteroko arazoa heldu zaigu: herriko dantzak egi-

teko mutilak falta dira. Beraz, ea biltzen garen eguna ailegatu baino lehen.



☛ KRISTALAK  
☛ PORTALAK  
☛ ESKALERAK

Tfnoa: 630557 - BERA

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA  
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO

TTPI-TTAPA ERABILIZ GERO

**ORDOKI**  
**ALTZARIAK**  
Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik

ZURE BIDAIK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO**  
**BIDAIK**

✕ HERRIAK  
✕ MENDIAK  
✕ TURISMOA  
✕ TREKING eta  
BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI  
AGENTZIA  
G.A.T. 2.015

ADUANNA KALEA, 5  
☎ 943 - 615177  
☎ 943 - 619489  
FAX 943 - 619517  
20.300 IRJLN



## MALERREKA

### Mediku-erizainen kontsulten ordutegia aldatu egingen da

'Uda eta Osasuna' kanpaina aste honetan hastekoa da

#### TXEMA ALDABE

Malerrekako herri gehienetan, abuztuaren 16tik aintzinerara, mediku eta erizainek kontsultan egoteko zituzten ordutegiak aldatu egingen dira. Erabaki hau, uztailaren 19an egin zen Osasun kontseiluan hartu zen. Herri bakoitzak izanen duen ordutegia berehala jakinaraziko zaio familia bakoitzari karta baten bidez.

Malerrekako mediku-erizain taldea erabaki hau hartzera beharturik aurkitu da, batez ere zenbait mediku eta erizain arrunt lanpeturik aurkitzen zirelako eta lana banatzea egoki ikusi dutelako. Orain, lan



Malerrekako herri gehienetako kontsula ordutegiak aldatuko dira abuztuaren 16tik aintzinerara

Artxiboa

banaketa berri honetan Doneztebe eta Bertizarana Jose Marik egingen luke, Sunbilla eta Elgorriaga Pilarrek, Ezkurra, Eratsun, Zubietta eta Ituren Maitek

eta azkenik Saldias, Beintza-Labaien, Urrotz, Oitz eta Donamaria Diegok.

□ **Uda eta Osasuna** kanpaina aste honetan Eratsun eta Ezkurran hasi

eta Malerrekako herri guztietan barna burutuko da abuztuan zehar. Kanpaina hau sei panelez (marrazki eta testuen bidez) osaturiko erakusketa eta hitzaldi bat emanen dute Malerrekako Osasun taldekideek herri bakoitzean. Pizinan eta hondartzan eguzkitan nola eta noiz egon behar den zenbait aholku agertzen dira eta hitzalditxoan honen azalpena eta uda aldean janariarekin kontutan hartu beharreko kontseiluak emanen dira.

Esperientzia hau Malerrekako Osasun taldearen inizatiba eta administrazio aldetik deus gutti egin da hau laguntzeko.

## TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

## BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



**TELLETXEA**  
**MOBLEAK**

### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

## ‘Correos’ en oraingo etxean mankomunitatearen lokalak jarriko dira

TXEMA ALDABE

Malerrekako Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Euskara eta Zaborren zerbitzuak, gaur egun Merkatarikarri Posta eta Telegrafoak kokaturik dauden etxean izanen dira. Doneztebeko udalaren etxe hau moldatu egingen da eta horretarako dirulaguntza eskaera egin zen Hirurteko plangintzaren barnean, 7 milioiko laguntza onartua izan delarik.

Hiru zerbitzu hauetaz gain, Erreka elkartearen bulegoa ere bertan egonen litzateke. Postalgoa eta



Korreo eta Telegrafoetako ofizina berria ia akituxea dagoen Bordatxo dantzalekuaren ondoko bulegoan egonen da

ARTXIBOA

Posta kutxa berria, ia akituxea dagoen Bordatxo dantzalekuaren ondoko bulegora pasatuko da.

Aipatu beharra dago

ere, Malerrekako Mankomunitatearen estatutuen onarpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean atera zela uztailaren 16an.

### W ttipi-flash

□ **Lau langile** hartuko dira hiru hilabeterako, abuztua, iraila eta urrirako hain zuzen ere, INEM eta udalaren artean sinaturiko komenioaren ondorioz.

□ **Osasun zentroaren** inguruak laister txukunduko dira. Osasunbidea eta Doneztebeko udalaren arteko akordio baten ondorioz, Udalak 1.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua utzi dio Nafarroako Gobernuaren erakunde honi Osasun zentroaren inguruan. Lur zati honen moldatze eta txukuntze lanak Osasunbideari dagokio.



### SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

### MariCruz LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



### CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mobleak eta manparak •
- Pareta ispiluak •
- Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021  
Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991  
Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

### ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa  
tratamendu naturalekin

• • •


Bizkarrezurreko arazoak

• • •

Zelulitisa eta loditasunaren  
kontrako tratamendua

• • •

Inzakardi 3 - 1. A eta B • ☎ 45 16 42 • DONEZTEBE



**Jean Paul Bouchet**  
Doktorea

### Asteartea 10

**Arratsaldeko 8etan** altxaferoa Herriko Etxetik. Ondoren, txaranga buruhaundiak herriko karriketan barna ibiliko dira. **Arratseko 9etan** baztan zopak, Ulibeltzak elkartean eta Herriko Ostatuan. **Gaueko 12etan** dantzaldia JATOR taldearekin.

### Asteazkena 11

#### San Tiburtzio Eguna

**10etan** diana. Airezko globoa. **11etan** meza nagusia San Tiburtzioren ohorez. **12etan** paleta gomazko partiduak lauaren barnean. Ibarra-Maritxalar. **Arratsaldeko 6etan** aizkol apostua: Etxeberria anaiak, Gago eta Barberenaren kontra. Ondoren, trikitiak, dantzariak eta bertsolariak. **8etan** eta **12etan** dantzaldia JATOR taldearekin.

#### Ortzeguna 12

#### Peñen eta haurren Eguna

**10etan** diana. **10'30etan** txirrindularien laisterketa: Bidasoa-Berroaran. **11'30etan** kars, gomazko gazteluak, zezen mekanikoa eta tren txutxu. **2etan** peñen bazkaria Herriko Ostatuan. **4etan** peñek txarangarekin batera herriko karrikak alaituko dituzte. **5etan** kars, gomazko gazteluak, zezen mekanikoa eta tren txutxu. **6etan** Sunbillako Gomazko paleta txapelketaren finalak, 1. eta 2. kategorian. Arratsalde eta gauez dantzaldia JATOR taldearekin.



KORO

### Ortzirala 13

**10etan** diana. Ordu berean mus txapelketa. **4'30etan** plater tiroketa herrikoentzat. Arratsalde eta gauez, dantzaldia JATOR taldearekin. **Gaueko 2'30etan** Kantzontzilon laisterketa. Irabazleari, zikiro jateko bazkaria dohainik emanen zaio.

### Larunbata 14

**10etan** diana. **12etan** Sunbillako haurren eskuzko pilota txapelketaren finalak. **2etan** zikiro-jatea. **5etan** txirrindularien laisterketa. Benjaminak, alebinak eta infantileko kategorian. **6etan** eskuzko pilota partiduak (ikusi programa berezia). **7etan** laruzko paleta partiduak: Oskar



MAXEPA

Insausti-Juan Rekalde, Fernando Mendiluze-Mikel Olanoren

aurka. Arratsalde eta gauez, dantzaldia JATOR taldearekin.

## SUNBILLAKO FONDA

Pintxoak eta bokadilloak

## IRURIBIETA

OSTATU JATETXEA

Irun-Iruñea Bidea, 61,5 Kma. , Tfnoa: 450399 - SUNBILLA

## BIBI Janaridenda

JANARI IZOZTUAK

Besta Onak pasa

Karrika Nagusia, Tfnoa: 45 09 74 - SUNBILLA

## HERRIKO ETXEKO OSTATUA

JATETXEA

Besta ederrak pasa

Karrika Nagusia, Tfnoa: 45 01 54 - SUNBILLA

### BEINTZA-LABAIEN

#### Uztailak 30, ortzirala Labaienen

arratsaleko 8etan altxaferoa. 8'30etan kalejira txistulariekin. Ondoren baztan-zopak herriko ostatuetan. 12etatik 3'30etara dantzaldia Modesto akordeolariarekin.

#### Uztailak 31, larunbata Beintzan

10etan argi-soinuak txistulariekin. Arratsaldean Malerrekako akordeolariak kalejira eta joaldi bat emanen dute. 7etan aizkol apostua: Mindegia-Larretxea. Lana, kanaerdiko 12 enbor moztea. 8'30etatik 10'30etara eta 12etatik 4'30etara dantzaldia Scana taldearekin.

#### Abuztuak 1, igandea Labaienen

10etan kalejira txistulariekin. 12etan meza nagusia. Meza ondoren Doneztebeko dantziariak. 5'30etan haurrendako joakoak 'Pista Libre' ren eskutik: Kars eta gaztelu puzgarriak. 8,30etatik 10,30etara eta 12,30etatik 3,30etara dantzaldia



Scana taldearekin.

#### Abuztuak 2, astelehena Beintzan

10etan kalejira txistulariekin. 11etan herriko plater haustea (tiro al plato). 6etan mus txapel-

keta Beintzako ostatuan. Arratsaldean eta gauez dantzaldia Scana taldearekin.

#### Abuztuak 3, asteartea Labainen

10etan kalejira txistulariekin.

12etan herriki kirolak eta 2etan zikiro-jatea, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bertsolariekin. Arratsaldean eta gauez dantzaldia Modesto akordeolariarekin, beste bukaera emanaz.



### BEINTZAko OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA • LABAIEN

### LABAIENGO OSTATUA

Pentsio osoa

Sukaldaria Julieta andrea

Tfnoa: 450055 - LABAIEN



GAZTANDEGIA  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
SUNBILLA

### JOSUNE eta AINHOA

Trikitilari Eskola

- ▷ Trikitixa
- ▷ Pandereta
- ▷ Kastañuelak

Irailetik aintzinera

Elizondo eta Sunbillan  
Apuntatzeko, 451596 Tfnoa.

### NATUR ETA ESKU TERAPIA

#### QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu  
naturala da.  
Interesatzen bazaizu  
deitu telefono bontara:

☎ 45. 16. 42

Inzakardi 3 - 1. A eta B - DONEZTEBE





## GOIZUETA

### Amaia Lujanbio: 'Atletismoa eta trikitixa berdin maitatzen ditut'

11 urteko neska hau Euskalerriko txapelduna da 2.000 metrotan eta Nafarroakoa crossean

ESTEBAN AROZENA

Pilotan eta futboleko goi mailako kirolarien faltarik ez da izan azken aldi honetan herrian. Baina urte gutxi barru hemen tradizio gehiegirik ez duen beste kirol mota batean ordezkari atera daiteke: atletismoan. Amaia Lujanbioz ari gara noski, azken hilabetetan garaipen ikaragarriak lortu bait ditu 11 urteko neskatokonek.

Titulu garrantzitsuenak aipatuz, pistan 2.000 metroetan Nafarroa eta Euskalerriko txapelduna da Amaia. Crossean ere punta puntan dabil, Nafarroako lehena eta Euskalerriko laugarren postua bere eskuetan bait daude. Hainbat



Amaia Lujanbiok 11 urtetarako lortu dituen garaipenak ikusiz, atletismoan etorkizun bikaina duela esan daiteke

herri crossetan lortutako garaipenak gehitu behar zaizkie esandako hauei. Etorkizunari begira helburu altuenak jarriak dauzka atletismoaren arloan.

Astean hiru egunez lasterkatzen egiten badu ere, trikitixari egunero ordu bat dedikatzen denbora ateratzen du nonbaitetik Amaiak. Duela lau urte hasi zen mu-

sika tresna honekin eta honetan ere sari mordoa eskuratu du dagoeneko. Atletismoa eta trikitixa, bietatik bat aukeratzeko eskatu genionean zalantzarik gabe erantzun zigun: "ezin dut horrelako aukerarik egin, biak berdin maitatzen bait ditut".

#### Zine emanaldiak euskaraz

Euskara zerbitzuak Nafarroako gobernuaren laguntzaz antolatutako euskarazko hiru zine emanaldi burutuko dira abuztuaren zehar. 10ean (asteartea) 'Arrosaren izena' filmea eskeinikoda; 11an, 'Behiak' eta 12an 'Rio Bravo'. Emanaldiak herriko plazan izango dira, gaueko 11etan.

## ARESO

### Sokatira taldea indarrean hasi da

Kultur eguneko lehen saioaren ondoren, jarraitzeko asmoa dute


JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Kultur Eguneko arrakasta ikusirik sokatira taldekoak prestatzen ari dira hurrengo urterako Nafarroako bigarren mailako txapelketan parte hartzeko. Herriko festetan eta beste konpetiziotan ere parte hartuko dute. Herriar batek lokal bat utzi die entrenatzeko eta patrozinatzaile batek arropa uzten die. Halere, beste batzuen laguntza ere eskergarria izanen zen, ba-

tez ere polea, soka eta goma erosteko. Bere entrenatzailea Josu Etxezarreta, askotan atera da munduko txapeldun bere herriko (Narabe) taldearekin. Parrandazale hauek forman jartzen lan ederra izango du.

Autobiaren obrak direla eta, kaltetuak beren protestarekin berriro hasteko asmoa dute, ez bait diziote beren kalteak eta diru zorrak ordaintzen.

Igeriketa ikastaroa



Josua Etxezarreta Nafarroako txapelduna irratsean dagoela ikusiz, entrenatzaile bezala

antolatu du lehen aldiz guruso elkarteak 6 urte dituz-

ten umeendako. Datorren udan jarraitzeko asmoa dute.

## Udalak bi langile hartuko ditu Karrape irratiarako

Graduado eskolarra eta euskara menperatzea besterik ez da eskatzen

JOSEBA AZPIROZ

Udalak Karrape irratiarako bi lanpostu atera ditu lanaldi erdirako. Bete beharreko baldintzak graduado eskolarra eta euskara maila ona, bai ahozkoa eta bai idatzia, izatea dira. Kontratoa sei hilabeterako egingo da, hiru urteraino luzagarria izanen delarik. Soldata B mailako funtzionarioei dagokien soldataren erdia (urteko 1.226.795 pztza gordinak). Eskaerak Leitzako udalan, irailaren 7ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu beharko dira.

□ **Ehiztari eta arrantzaleen** elkarteak zuzendaritza batzordea berritzeko egindako lehendabiziko deialdian inork parte hartu ez zuela eta, bigarren aldiz ireki du hauteskunde prozesua. Hautagai-zerrendak hilaren 26ko 24 orduak baino lehen aurkeztu behar



Udal liburutegiko arduradunek, eguraldiak lagundu duenean igerilekura eramane dituzte liburuak

ziren eta hauen onarpena eta argitalpena 29ko 24 orduak baino lehenago egingo da. Hauteskundeak berriz hilaren 31a, igandea, gaueko 9etan egingo dira, Udaletxeko aretoan. Bestalde, elkarteak aparteko batzar orokorra egingo du 31an Udaletxean, gaueko 9etan, 1993-94 denboraldian ordaindu beharko kuotaz eta kide berrien onarpenaz.

### Liburuak piszinan

Nafarroako Gobernuak beste liburutegitan bezala, Leitzakoak ere bere liburuak eramane ditu igerilekuetara "Liburu baten gerizpean" kanpainaren barnean. Piszinan aurki daitezkeen liburuak irakurterrezak eta arinak dira, baina orain arte egin duen eguraldi kaxkarra kontutan hartuz, hiru aldiz bakarrik atera dira euren txokotik.

### W ttipi-flash

□ **Martin Mujika** Astibiak jarraituko du Leitzako Bake Epaila izaten beste lau urtez. Kargurako bera bakarrik aurkeztu zen.

□ **% 65a** baino gehiagoko ezintasuna duen edozeinek, beraientzat bereziki erreserbatuta dauden zonetan ibilgailua aparkatzeko behar den txartel berezi bateskuratu dezake Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bulegoan (Osasun Etxea), agiri hauek eramane beharko dituztelarik: Nortasun Agiriaren Numeroa (DNI), gida baimena (ibilgailuaren ohizko gidariarena), Ezintasun agiria eta ibilgailuaren matrikula.

□ **Iraila** bitarte ez da Leitzako berririk izango. Beraz, ongi pasa uda eta pestak eta hurrengo arte.

\*\*\* SAN TIBURTZIOAK - 93 PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU \*\*\*

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN  
SARTU DA  
ZUREA ERE SARTUKO DA  
PUBLIZITATERAKO  
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO



X Eraiketarako materialak  
X Zeramikak eta bainuak  
X PVCzko leihoak

Aurrekontuak egiten dira  
Tfnoa: 504410 - LEKUNBERRI

**MANGADO Y OCHOAren Banatzailea**

**SAGASTI**  
**Jatetxea**

Bokadilo goxoak eta  
paregabeko bazkariak  
Tfnoa: 610637 - LEITZA

**ADUR TABERNA**

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

*Lorea eta Idia*

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA

BAZTAN

# Amaiurrek irabazi zuen Baztandarren Biltzarreko lehen saria

Aurtengo edizioaren balantze arras positiboa egin dute antolatzaileek

JOSEBA IGARABIDE

Baztandarren Biltzarren balantze arras positiboa egin zuen Mikel Iriartek, elkarteko lehendakariak, bere ustez baztandar jendea inoiz baino gehiago agertu bait zen Elizondon. Erabe-rean, jarrera arras ona sumatu zuten komertzioetan orga zama betetzeko, baita txartel salmentan ere. Aipatu behar da iaz baino 5 karrroza gehiago aurkeztu zirela (12) nahiz eta aurtan hiru herri ez presentatu. Datoren urterako herri guztien partizipazioa lortu nahi du Baztandarren Biltzarra elkartek. Bazkarira, 1.800 pertsona agertu ziren jatera eta 200 bat izan ziren serbi-



Amaiurko orgak Santiago bidea heritik pasatzean gogoratzen zuen

tzatzen eta gainontzeko lanetan. Amaiurkoa izan zen orga irabazlea, ondotik Arizkun eta Oronozko iturria agertzen zuena hirugarrena. Bertze gaiak, lehengo ezkontza bat (Aniz), doktri-

na (Basaburua), haurjokoak (Irurita), sabaia eta artoa xehatzeko makina (Arraioz), belagia (Elizondo), natura (Elbetea) eta politikarien aldaketak (Erratzu). Gestorak ere atera zuen berea.

## W ttipi-flash

- ❑ **Erratzuko** frontoi ondo-ko obrak ziztu bizian aintzina doaz, nahiz eta herriarrek zehazki ez jakin zer egin behar den bertan.
- ❑ **Arizkunenean** haurrak apuntatzen ari dira abuztuan burutuko den plastika ikastaroetarako. Abuztuan burutuko da.
- ❑ **Baztan**, Zugarramurdi eta Urdazubiko alkateek, Be-lateko tunelaren lanen hasiera ikustera etorri zela probextuz, N-121-B errepidea hobetzea eskatu zioten Alli lehendakariari, Dantxarineako pasabidea sendotzeko asmoz.



Arizkongo orgak Ameriketara joandako baztandarrak gogoratzen zituen



Orga zama 6.460 zenbakiari tokatu zitzaion eta bi hilabete ditu jasotzeko

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**MERKEALDIK ARROPA ETA TELETAN**

**KASINO OSTATUA**

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO



## Zigako bestak, abuztuaren 7tik 11ra

PABLO MENDIBURU

**Larunbata 7**, 12etan suziriak. 8etan baztan-zopak Etchezuri eta Indakoa ostatuetan. 9etan gazteen afaria. 12'30etatik 5etara gau-pasa *Drindots* taldearekin.

**Igandea 8**, 10etan argi soinuak. 12etan herriko mus txapelketa. 6etan herri kirolak: Nafarroako 2. mailako proba konbinatuaren txapelketa (Basaburua, Artzuri - Goizueta-, Txantrea, Lakuntza). Sokatira (neskak: Basaburua eta Berriozar; mutilak: Basaburua, Berriozar eta Lesaka). Arratsalde eta gauetz dantzaldia *Izadi* taldearekin.

**Astelehena 9**, haurren Eguna, 12etan herriko nesken pala txapelketa. 5etan

mutien pala txapelketa. 6etan antzerkia. Ondotik haurren jokoak. 7'30etan txokolatada. Arratsalde eta gauetz dantzaldia eta 12etan "ezkilaren errepika".

**Asteartea 10**, San Lorenzo eguna, 11etan meza nagusia, 12etan hameketakoa plazan. Ondotik Baztango dantzarien ekitaldia. Arratsalde eta gauetz dantzaldia *Iparraldeko* taldearekin.

**Asteazkena 11**, 11etan pala txapelketaren finala. 12etan mus txapelketaren finala. 2etan zikiro-jatea. Bazkalondoan, M. Arozena, Elizagoien, X. Lizaso eta Mañukorta bertsolariak. Arratsalde eta gauetz dantzaldia Modestorekin.



### BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

• TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373

### ETXEZURI

DENDA • OSTATUA

*Besta alaiak opa dizkizuegu!*

Tfnoa: 452078 • ZIGA

M<sup>re</sup> Dolores Mirana TOPOGRAFOA

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak

Luberrak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

### OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI

### MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

### MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313  
ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA



## ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO

Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure  
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN  
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



SARA

## Barnetegiaz bizpahiru hitz

600 bat jende jin dira azken bortz urtetan

MIXEL ETA JACQUELINE

Aurtengo udan eta bortzgarren aldikotz gure artean aurkitzen dira hego aldetik jin gizon eta emazte andana bat. Gaineko eskolan jarriak dira eta Donostiako Rikardo Arregi, Monpas eta Altza hiru euskaltegi eta Erreterriako Ortzadar deitu euskaltegiak denak batera dute beren gain hartzen euskararen erakuskuntza. Barnetegian xedea da bereziki hegoaldekoeri Iparraldeazagutaraztea eta nolaz ez, gau eta egun euskal giroan bizitzeko parada ezin hobe eskaintzea kideeri. Nola iragaiten da barnetegia beraz? hama-bortz eguneko hiru txande-



Donostia eta Erreterriko 4 euskaltegitik jin dira gizon eta emazte andana bat barnetegira ARTXIBOA

tan mugatua da, baina lekuak izanez barnetegiak gehiago irauten ahal luke. Geroak emanen du erakustera zer bilakatuko den ondoko urtetako barnetegia... Baina jada bere frogak

eginak ditu eta 600 bat jende pasatu dira barnetegian gaur eta hamabi mailetan sailkatua izanez ere erakuskuntza, hemen zazpigarren mailatik goitiko kurtsoak segurtatuak dira.

## Pilota ondorioak

Uztailaren 4ean Sarako Arrieta trinketean iragan dira esku huskako Txoko finalak. Hautxek dira ondorioak: **Azpiko B mailan:** Nino 30 - Kako Goietxe 21. **Azpiko A mailan:** Mattin Tapia 30 - J.C. Adelaide 22. **Arteko mailan:** Jakes Irigarai 30 - Panpi Lazkanotegi 22. **Lehen mailan:** Pantxo Berekoetxea 30 - Daniel Mariluz 23.

**Esku huska** Milafrankako errebotean, uztailaren 12an, Euskal Herriko xapeldun gazte edo "junior" mailan: Christophe Mariluz saratarra eta Albert Etxeberri ezpeletarra, Lehorneko Eskulari taldeko jokolarien aurka 30-16 irabazi ondoren.



**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562  
IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA  
BAINU MOBLEAK**

Egokiren banatzaile  
baimendua



ARROPA DENDA



**CERVANTES**  
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia



Komuniotako  
erreportaiak  
argazkiak eta  
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40  
ELIZONDO

Eta orain, zure  
koloretako argazkiak  
**ORDU BATEZ  
ERREBELATUAK**  
ditugu



**JATETXEA**  
Tfnoa.: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galarza**

**SOULE**

Gurutze eta  
bilarriak

☎ 45 30 38 ARIZKUN  
☎ 12 35 72 IRUÑA

## Seigarren motocross txapelketa abuztuaren 8an egingen da

Atsulai dantza taldekoak berriz, Hungarian pasatu dituzte bi aste

ALIZIA OLAIZOLA

Abuztuaren 8an, arratsaldeko 4etan Nafarroako txapelketarako baliogarria den Urdazubiko VI. motocross txapelketa burutuko da. Proba honetan mugaz bi aldetako hoberenxokenak arituko dira: Mikel eta Javier Zabala anaiak, Mikel Purroi, Bruno Moulinier, etabar... Hiru mailetan izanen dire: senior, junior eta jubenilak.

**Atsulai dantza taldekoak Hungarian**  
Atsulaiko dantzariak



Aurten ere, uztailan haurrak izan dire Elizondoko igerilekuan

Hungarian pasatu dituzte bi aste. 35 lagun izan ziren eta

bakoitza famili batekin egon zen bertan. Autobusean egin

zuten bidaia. Egunero dantzatu zuten euskal dantzak eskeiniz. Hizkuntzarekin problema piska bat izanik ere ederki pasatu omen dute eta datorren urtean Hungarian dantzariak hunatetorri beharrak dire.

### Jaiotzak goiti

Aurten jaiotzak goiti doazi. Lau egun barne berriz bi jaiotza izan dire. Uztailaren 15ean Estitxu Suhars Sansiñena eta 19an Arantxa Etxeberria Bengoetxea. Jadanik lau dire aurten Urdazubin sortuak.

# BAZTAN, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO 1. GASNA LEHIAKETA

Amaiurren, abuztuaren 15ean, Igandea, goizeko 11etan

### Lehiaketaren Oinarriak

- 1.- Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi bizi diren artzai eta gasna egileek parte har dezakete.
- 2.- Ardi gasna txapelketa da; 60 egun eta 6 hilabete tarteko gasnentzat.
- 3.- Egile bakoitzak gasna bakarra aurkez dezake.
- 4.- Gasna bakoitzaren truke 1.300 pezeta emango da.

- 5.- Gasnak, abuztuak 15ean, goizeko 11ak baino lehenago ekarri beharko dira Amaiurko plazara.
- 6.- Sariak: 1.- 15.000 pzta eta trofeoa  
2.- 12.000 pzta eta trofeoa  
3.- 8.000 pzta eta trofeoa
- 7.- Gasnak, Besta Batzordearen esku geldituko dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero 453060 telefonora deitu

## EZKONTZAK

**Alfonso Telletxea Eleta eta Itziar Satrustegi Ziganda**, Oitz eta Hendaiakoa, ekainaren 26an.

**Carlos Maiza Iturbide eta Ana M<sup>a</sup> Quintana Garaioa**, Atarrabiakoak, ekainaren 26an.

**Ignacio Gorostidi Iribarren eta Maialen Jaimerena Irigoien**, Elizondo-Arizkun, uztailaren 2an.

**Jose Nicolas Ballarena Iturburua eta Maite Oteiza Apeztexea**, Erratzu-Irurita, uztailaren 3an.

**Stephane Montefiore eta Rhianon Fox**, Fécamp eta Sarakoa.

**Pascal Guinet eta Solange Grivet**, Fontenay s/ Bois eta Sarakoa.

**Maixux Mutuberria eta Jorge Bereau**, Sunbilla eta Arantzakoa, uztailaren 17an.

**Gregorio Nuñez Blanco eta Lurdes Iturburua Etxandi**, Iruña eta Erratzukoa, uztailaren 7an.

**Fernando Astiz Lasa eta Cristina Goñi Etxenike**, Elizondo eta Lekarozkoa, uztailaren 10ean.

**Fco. Javier Arrieta Pueyo eta Pilar Sarratea Goienetxe**, Elgorriaga eta Zigakoa, uztailaren 17an.

## JAIO TZAK

**Rocio Palacin Barroso**, Lesakakoa, ekainaren 21ean.

**Olaia Iantzi Ordoki**, Lesakakoa, ekainaren 30ean.

**Estitxu Suhas Sansiñena**, Urdazubikoa, uztailaren 15ean.

**Arantxa Etxeberria Bengoetxea**, Urdazubikoa, uztailaren 19an.

**Amaia Leiza Apeztegia**, Berakoa, uztailaren 11an.

**Uxua Iglesias Vazquez**, Berakoa, uztailaren 16an.

## HERIOTZAK

**Auguste Begiristain**, Sarakoa, ekainaren 19an, 63 urte.

**Joset Bergara**, Saran, uztailaren 4ean, 72 urte.

**Maria Juana Ostroska-Larria**, Saran, uztailaren 5ean, 77 urte.

**Alberto Etxeberria Jaurena**, Arizkun, uztailaren 15ean, 81 urte.

**Gregorio Egurrola Mujika**, Elizondon, uztailaren 17an, 76 urte.

**Pilar Amorena Esparza**, Elizondon, uztailaren 21ean, 78 urte.

**Fermin Lazkano**, Arantzan, uztailaren 21ean, 72 urte.

# 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,**

**2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,**

**4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,**

**2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,**  
**dekorazio denda bat, supermerkatu bat,**

**aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,**

**bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,**  
**hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.*

*Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial



**LUIS  
MARIANO**

Irun

## Iruritak Oitzeri irabazi zion laxoa txapelketako finalean



Iruritako taldeak hirugarren aldiz jantzi zuen Baztan-Errekako laxoa txapela, Iruritan bertan uztailearen 11an jokaturako final ikusgarrian Oitzeko taldeari 9-7 irabazi ondoren.

Laxoa txapelketaren hamalagarren edizio honetako finalean parte hartu zuten jokalariek honako hauek izan ziren: Iruritatik Bertiz, Elizainzin, Prim eta Garate; Oitzetik Anso, Zelaieta, San Miguel eta Mingia.

Iruritak finalean parte hartzeko ustekabea eman zuen erdifikalean, iazko txapelduna (Doneztebe) kanporatu baitzuen. Oitzek bere aldetik lan guttiago izan zuen arraiotarrak kanpoan uzteko, bi partidoak aise irabazi bait zituen.

## ZURE ETXEBIZITZA EROSTEKO



Pasa zaitez gure  
bulegoetatik



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

**SUNBILLA, BERA ETA LEITZAR  
GUZIEI BESTA ONAK  
OPA DIZKIZUEGU**





## Irratia zaletasun bihurtzen denean

*Gorramendi elkarteak biltzen dira zonaldeko irrati - afizionatu gehienak*

“Sarajevon izugarrizko gatazkak gertatzen ari dira une honetan, irrati afizionatu batek errandakoaren arabera” edo “Japonian gaur goizaldean lurrikara sumatu dela adierazi du bertako irrati afizionatu batek”. Sarritan aditu izan dugu horrelakoak telebista edo irratiaren bidez. Gure zonaldean ere badira beraien ahotza mundu guztian zehar hedatzen duten afizionatuak, baina ez zaie gustatzen soilik lan horregatik ezagunak izatea. Irratiaren ezaugarri teknikoak ikerketan ematen omen dute denborarik gehien. Bortziriak, Baztan eta Malerreka 23 zale –40 lizentzia egon arren– Gorramendi irrati-afizionatuen elkarteak biltzen dira.



Urruneko herrialdeetako afizionatuekin lortutako harremanak beren ekimenaren alderik ikusgarriena eta ezagunena izan arren, irratiaren alde teknikoarekin zerikusia duten bertze hainbat lan egiten dituzte irrati zaleek

**E**lkartea duela bortz urte sortu zen irrati-club autonomo bezala, baina geroztik UREko (Unión de Radioaficionados Españoles) sekzio bezala funtzionatzen du. Nafarroan, gisa honetako lau sekzio daude mo-

mentu honetan—Iruñea, Tuter, Lizarra eta Donezteben egoitza duen Gorramendi (tikiena)—.


Beraien estatutuak azaltzen den bezala “irrati-elektrizitatea eta irratiari buruzko ikerketak egitera dedikatu behar dira, aberasteko inolako asmorik

gabe”. Hiru lizentzia mota daude, hasberriarena, mugatua eta orokorra, gainditutako azterketen arabera—telegrafia eta elektrizitate ezagupenak eskatzen dira, bertzeak bertze—.

Baina azterketak gainditu eta ekipoa izateaz gain, bertze zenbait baldintza bete

behar dira estazio bat etxean montatzeko: alde batetik, bizilagunen adostasuna (auniztan telebistarekin arazoak izaten dira, baina gehienetan TB antenen instalazioaren errua omen da, Joaquin Fernandez Gorramendiko lehendakariaren ustez). Bertzalde, antenen memoria tekniko eta bortz urterako 20.000 pezetako kanona ordaintzea ere beharrezkoa da.

Hagitx zabala da irratia-  
ren eremua -telebista, fax  
edo ordenagailua konektatu  
daitezke- baina nagusiki  
irratia-  
ren alde tekniko lan-  
tzen dute eta horretaz solas-  
ten dute. Ezbehar bat gerta-  
tuz gero agintariekin kola-  
boratzeko obligazioa dute.  
Halere, agintariek zailtasun  
aunitz jartzen dizkietela eta  
kexu agertzen dira.



Kontaktoa egin dela ziurtatzeko txartelak bete eta elkartrukutzen dira elkartearen bidez -mendizaleak gailurrera iristean egiten duten gisara-

Gorramendi elkarteak  
bertze zenbait zerbitzu ere  
eskeintzen ditu: lizentzia  
lortzeko ikastaroak (iaz Be-

ran 10-15 bat lagun bildu  
zitezuten), nahitanahiezkoa  
den antena aseguru edo  
txartelen trafikoa bideratu.

Eta, hori bai, irrati zaleta-  
suna eta ilusioa gainezka.

Testua: Aitor AROZENA  
Argazkiak: Karmele TOLOSA

Julian Perianes, 'Gorramendi' irrati afizionatuen elkarteko idazkaria:

## «Irrati-afizioa, klase guztietako lagunak egiteko modu bat da»



► *Nolako ekipoa behar da irrati-afizionatua izateko?*

► Irrati-afizioa ezagutzen ez duenaren galdera tipikoa da hori. 15.000 pezetagatik lor dezakezu kotxean paratzeko emisora bat eta lizentzia eskura dezakezu. Irrati emisio distantzia mugagabea izan daiteke, beti ere frekuentzia eta hedapen egoeraren arabera.

► *Nongo jendearekin lortu duzue kontaktatzea?*

► Normalean, inguruko jendearekin harremanatzen gara, baina Eskandinavia, Argentina edo Australiarekin ere lortu ditugu kontaktoak. Behin, Venezuelen lurrikara bat gertatu zen eta

**«Mundu guztiko jendearekin harremana zaitezke zenbait frekuentzian» •**

inkomunikatuak geratu ziren. Hango emakume batekin kontaktoan jarri ginen. Bere familia Zaragozan bizi

zen eta bertara telefonoz deitu nuen, ongi zeudela errateko. Gero, bere senar eta alabarekin bisitan etorri zen Doneztebera. Halere, normalean harremanak irrati bidez soilik eman ohi dira.

► *Egitan afizioa edo bizioa da hau zuentzat?*

► Afizio bat bezala hartu behar da, hagitz sana eta polita den afizioa. Edukatzeko balio duen afizioa da. Lagun aunitz egiten dira, klase sozial eta adin guztietakoak gainera.

Manuel Iriarte, Berako alkatea:

## «Dirurik ez dagoenean ahal dena egiten da, eta ez nahi dena»

Manuel Iriarte  
1974-78 urteetan  
sartu zen lehen aldiz  
kontzejal modura.  
Geroztik alkatetzan  
egon da beti, familia  
kontuengatik  
1983-1987 arteko  
legealdia kenduta.

Azkeneko  
hauteskundeetan ere  
'Herrialde' kandida-  
tura independente-  
aren zerrendaburu  
aurkeztu zuen eta  
botutan gora egin  
zuen. Berrogeita-  
mahiru urte ditu eta  
eletrizista da lan-  
bidez. 'Palmadera'  
ireki zenetik bertan  
ari da lanean (30 urte  
bete dira uztailearen  
27an)



«Zalaingo  
industrialde-  
rako bide  
sarreraren  
arazoa moldatu  
bitartean, lur  
industrialak  
ezin eskeinian  
gabiltza.  
Momentu  
honetan  
alternatiba  
baten bila  
dabiltza  
Diputazioko  
ingeniariak».

**ttipi-ttapa.** Azken legealdi honetako balantze bat egi-terakoan zer aipatuko zen-  
nuke?

**Iriarte.** Toki guzitan gerta-zen den bezala aiuntamen-tuek ere krisian daudela. Sartzerakoan asmo pila ge-nituen baina... gauzabatzuk ezin dira nahi bezain abudo egin. Baserrietako bideak, errate baterako, breaztatze-tik falta direnak aurten

breaztatzeko intentzioa ge-nuen eta hankamotz gelditu zaigu, izan ere 1995ean emanen bait digute horretar-ako laguntza. Karrikak ere moldatu nahi ditugu eta he-men ere deus ez... Bertzal-de mendien kontua dugu. Egia da Diputaziotik lagun-tza haundiak lortu direla mendirako bainan halere motz gelditzen da. Mendiak orain, duela 10 urte baino

hobe daude bainan duela 50 urte hobekiago zeuden.

**ttipi-ttapa.** Eta aintzineko legealdiari buruz...

**Iriarte.** Futbol zelaia eta Polikiroldegia lehen hasi ziren eta legealdi honetan bukatuko dira. Lehenago krisia aipatu dut eta krisia Nafarroako Gobernura ere ailegatu dela erran nahi nuke. Espero baino dirulaguntza gutiago hartu dugu. Eta gai-

nera, holako obra haunditan maiz gertatzen den bezala, aurrekontuak ziotena baino goitiago joan da azkenerako inbertsioaren kostua. 10-20 milioi pezetako diferentziak aunitz nabaritzen dira. Guzi honekin batera erran behar da Diputazioan izugarri martxa mantsoak dabiltza-la, bai dirulaguntzak ema-terakoan eta baita ordain-tzerakoan ere; dirulaguntzak



ez dira ailegatzen eta ordainketetan ere beti gibelka ibilki dira. Horregatik, gurea bezalako udalak arras juxtu gabiltza ekonomikoki.

**ttipi-ttapa.** *Zertan dago Berako industrialdearen afera...*

**Iriarte.** Bada euskal enpresa bat Beran lantegi berria egiteko lurra eskatzen ari dena, 100 lanpostu sortuko lituzkenak arrain produktuen manipulazioan, baina, momentu honetan udalak ezin dio lurrik eskeini. Arau-subsidiarioetan badago industrialderako gordetako lekua baina bide sarrerak egiteko problemak ditu. Bide sarreren arazoa moldatuko balitz, orduan bai; udalak eskeini ahalko luke lur industrialik. Bitartean, Diputazioko ingeniariak alternatibak begiratzen ari dira eta soluziorik bilatuz gero, 24.000m<sup>2</sup> pabilioi egiteko eremua genuke.

**ttipi-ttapa.** *Eta etxebizitza sozialak noizko?*

**Iriarte.** Eskakizuna haundia da eta momentu hauetan arau subsidiarioak moldatu nahi dira dagoen eskakizun teoriko hori ase ahal izateko. Dena dela, udalak alde guziak bildu nahi ditu, lurjabeak eta promotorea, eta irailan bertan afera moldatu. Zeren, plazo baten barnean konforme jartzen dira edo bertzenaz desjabetze edo espropiaziora joko da!

**ttipi-ttapa.** *Euskararen udal ordenantzen kontrako mozioa aurkeztu zenuten duela hilabete bat...*

**Iriarte.** Asunto honetan



«Euskararen ordenantzak direla eta gauza bat argi dago: talde bezala eta udal-partaide garenak, euskararen alde gaudela arront»



**«Nafarroako Gobernutik  
dirulaguntzak ez  
dira ailegatzen eta  
ordainketetan beti  
gibelka ibilki dira»**

gauza bat argi dago: talde bezala eta udal-partaide garenak, euskararen alde gaudela arront. Bertze kontu bat da erabiltzerakoan arazoak ditugun edo ez. Dena den sinadurekin ikusi denez badago jendea bertze modu bateko ordenantza eskatzen duena eta zentzu horretan, ahal bezain abudo Euskara Mankomunitatekoekin biltzekoak gara.

**ttipi-ttapa.** *Ikastetxeetako Guraso Elkarteek gazteetan alkohola eta drogen arazoa dagoela eta, ardura gehiago eskatu diote udalari...*

**Iriarte.** Preokupazio haundia dago zonako Guraso Elkartearen artean. Bildu dira eta udal guztietan eskatzen ari dira ostatuaren ordutegiak

errespetarazteko neurriak hartzea eta gau-pasen antolatzaileei erantzunkizunak eskatzeko. Elkarteetakoekin bildu naiz eta baita inguruko alkateekin ere, toki guzitan neurri berdinak hartzeko. Beran, adibidez, 3 ostaturi buruz kejak hartu dira goizeko 5etan oraindik idekiak egoteagatik. Kontua da Beran ez dugula nahiko bitartekorik (polizia munizipala Baztanen bezala) ordutegiak bete arazteko. Gure lana beraz, legea betearaztea da, horrela inork kaltetua gerta ez dadin, ez bizilagunak eta ezta ere 16 urtez behitikoak.

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN  
Argazkiak: Miren K. TOLOSA



ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

## ▼ Etxebizitzak

• **Legasan** pisu amueblatu eder bat alokatzeko. ☎ 615016.

## ▼ Lana

• **Abuztuan** mekano-grafia eta ordenadoreko klaseak ematen dira. ☎ 580155.

• **Euskarazko** klase partikularrak emanen nituzke, maila guztiak, goizez eta arratsalde. ☎ 630108.

• **Magisteritza** ikasleak klase partikularrak emango lituzke Lesakan. Euskaraz edo erdaraz. ☎ 637095.

• **Kamioiak** gidatzeko edo bertze edozein lanetarako gazte ezkondua eskeintzen da. Urtebeteko esperientzia dut. ☎ 627623.

• **Neska euskalduna** udako hilabetetan lan egiteko prest dago. ☎ 630356.

• **Abuztuan** nere semeei zientziako klase partikularrak emateko irakasle euskalduna behar dut. Gurekin etxean Aezkoanegoteko. ☎ 764018 (Karmele).

• **Puerikultura** titulua eta EGA duen neska batek

Beran edo Lesakan haurrak zaintzen edo Igantzin edo Lesakan euskarazko klaseak ematen lan egingo luke abuztutik aintziner. ☎ 637911, eguerdi edo arratsetan (Edurne).

## ▼ Salerosketak

• **Honda 250** motoa salgai. Bortz urte ditu baino gutti erabilia. Prezio merkean. ☎ 452027.

• **Beran** 70 m<sup>2</sup>ko lokal bat salgai. Bulegoa, denda edo antzeko negoziotarako prest dago. ☎ 630970.

• **Sukaldeko** tresnak eta elektrizitate eta olioeko kalerakzioak salgai, oso merke. ☎ 592157 (eguerditan).

• **Trikitixa** bat erosiko nuke Zero Sette markakoa. ☎ 580939.

• **Peluleriko** mueble, akzesorio eta ur beroa lortzeko termo elektriko bat salgai. Prezio interesgarria. ☎ 610910.

• **Honda** Trail XL 600 RM, NA-AC matrikula, kasko eta botakin 275.000 pztan salgai. ☎ 630922

(Javier).

• **Ford** Orion diesela salgai (SS-4664-U). Prezio eta egoera hagitz onean. ☎ 637124.

• **Belarra** igotzeko makina elektrikoa salgai. ☎ 634082.

• **Bitxakur** grifonak erbi ehizekoak salgai, bat 3 urtekoa eta bestea 6 hilabetekoa. ☎ 450474.

• **Mendi bizikleta** kua-droa salgai prezio onean. ☎ 610663 (Xabier Erbiti).

• **Vespino** motoa salgai. 4.800 km. egindakoa eta kolore gorrikoa. Oso itxura ona dauka. ☎ 510391.

## ▼ Denetarik

• **Zuhaitzak** aldatzeko barruti, belar soro edo ireztor lekua erosiko nuke Leitzen, Areson, Ezkurran, Uitzin edo Gorritin, kotxearekin bertaraino iristeko moduko lekuan. Milioi bat pezetarte ordainduko nuke. ☎ 510444 (Patxi).

• **Bi pertsona** behar dira pisu bat osatzeko Iruñeako Alde Zaharrean, abuztutik aurrera. ☎ 171232 (Amaia,

goizetan).

• **Lesakan** Sanferminetan giltza batzu aurkitu baitutuzu deitu 631188 ☎ra.

## ▼ Harremanak

• **Begira**, Etxalarko Sutagarzale ero horrentzat: Jaio nintzen bai amodio batean eta hara non zu agertu zinen. Zorionak, badakizu eta zer den. Sutagar zuretzat.

• **Zorionak** eta muxu haundi bat Igantziko Izaskuneri, berekin hagitz ongi pasatzen dudalako. Arantzako ? partez.

• **Etxalarko** Jasone Zelaietari: zorionak eta ongi pasa 16. urtebetetzea (abuztuak 16). Zure familia.

• **Aresoko** Juan Esteban, Unai eta Naiarari: zorionak zuen urtebetetze egunean (uztailaren 21, 27 eta 28a). Zorionak. Zuen familia.

• **Sunbillako** mutiko bitxiari: zorionak zure urtebetetzeagatik (abuztuan). Ea datorren urtean elkarrekin ospatzen dugun Pasai aldean. Maite dizun neska batek. T.K.



**GIZONEZKOEN  
MODA**

**muñeca  
de trapo**

**EMAKUMEZKOEN  
MODA**

BIAK, IRUNgo LUIS MARIANON



**BORTZIRI**

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

\* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

HARRIA,  
HERRIA,  
**IRRIA...**

Elkar lagunduz  
idazten goaz  
eguneroko **ORRIA**



**NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**

**BERAn**

- Foru Plaza 3
- Altzate 33

**LEITZAn**

- Huarte Gotzaia 19

**SUNBILLAn**

- Karrika Nagusia z/g



Argazkia: GOIKO



Berako Udalak besta onak opa dizkizue  
Beratar eta bisitari guziei



**MARTIKO**

*Bertako Baserrietako Produktoak*